

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 37/2016 Foru dekretua, maiatzaren 10ekoa, onartzen dituen, Euskal Herriko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren baitan, lurralde historiko honetan muga naturalak edo espezifikoak dituzten zonetako nekazaritza ustiatzei laguntzeko oinarri arauak eta 2016rako haren deialdia

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 21eko 12/2012 Foru Dekretuaren bidez oinarriak onartu ziren Arabako Lurralde Historikoan mendialdeetako eta mendikoak ez diren aldeetako berezko zailtasunak konpentsatzera bideratutako dirulaguntzak, EAeko Landa Garapen Iraunkorreko 2007-2013 plangintzaldiko Programaren babespean. Geroago, Diputatuen Kontseiluaren zenbait foru dekreturen bidez aldatu zen hura, otsailaren 19ko 7/2013, apirilaren 1eko 18/2014 eta apirilaren 14ko 22/2015 foru dekretuen bidez, hain zuzen ere.

Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez (LGENF) landa garapenera laguntzeko Kontseiluaren 1698/2005 (EE) Arautegiarekin bat etorriz, foru dekretu honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko 2007/2013 Planaren neurria garatu da 2007tik 2013ra bitartean; izan ere, plan hori Europar Erkidegoen Batzordeak hala erabakita onartu zen eta haren kudeaketa Arabako Foru Aldundiari zegokion.

Honako arautegi hauek aldarrikatu dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1305/2013 Arautegia, 2013ko abenduaren 17koa, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez landa garapenerako laguntzari buruzkoa dena eta Kontseiluaren 1698/2005 (EE) Arautegia indargabetzen duena; Batzordearen 808/2014 (EB) Exekuzio Arautegia, 2014ko uztailaren 17koa, arautegi horren aplikazio xedapenak ezartzen dituena; eta Batzordearen 807/2014 (EB) Arautegi Ordezkatua, 2014ko martxoaren 11koa, 1305/2013 (EB) Arautegia osatzen duena. Arautegi horien bidez, landa garapeneraren aldeko politika bultzatzen da eta, era berean, estatukideei eskatzen zaie gutxienez LGENFren laguntza osoaren ehuneko 30 erabil dezaten klima aldaketa apaltzeko landa garapenera eta ingurumen alderdiei buruzko programan. Gastu hori honela egin beharra dago: nekazaritza eta klima ingurumeneko ordainketen bidez, nekazaritza ekologikoa sustatzeko neurrien bidez, natura mugak edo bestelako muga zehatzak dituzten guneei zuzendutako ordainketen bidez, baso ordainketen bidez, Natura 2000ko guneei egin beharreko ordainketen bidez eta klima eta ingurumenaren aldaketarekin zerikusia duen inbertsiorako laguntzaren bidez.

Aurreko 2007-2013 plangintzaldian bezala, abian jarri beharreko neurriak planifikatu behar dira, gorago aipatutako batasunaren arautegietan ezarritakoaren arabera, eta, ondorio horiei begira, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020ko Programa prestatu da, planifikazio hori jasoz. Europako Batzordeak programa onartu du Batzordeak egitasmoa be-tearazteko hartutako 2015eko maiatzaren 26ko erabaki bidez. Programa hori lehentasunezko premien inguruan egituratu da; izan ere, premiok jasota daude landa ingurunea osatzen duten eremuen egoerari buruzko diagnostikoan, aurre egin beharreko helburuen eta ildo estrategi-koen aukeraketan eta, azkenik, behar besteko finantzaziora abian jarri beharreko neurri eta jarduketan hautaketan.

Aurreko guztiak berekin dakar foru dekretuen bidez Arabako Lurralde Historikoan nekazaritza ustiatzei eta landa guneen garapenera erlaziorik zuzenena duten neurriak argitaratzeko beharra, zeregin hori Arabako Foru Aldundiaren eskumena baita.

Foru Dekretu honek natura mugak eta bestelako muga zehatzak dituzten guneei zuzendutako laguntzak garatzen ditu; horiek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapenerako 2015-2020ko Programan identifikatzen dira, 13. N izeneko neurri gisa (13.1. N "mendialdeko

konpentsazio ordainketak” eta 13.2. “natura muga nabarmenak dituzten bestelako guneetarako konpentsazio ordainketak” azpineurriak), eta batera finantzatzen dituzte Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) eta Arabako Foru Aldundiak, ehuneko 75arekin eta ehuneko 25arekin, hurrenez hurren. Neurriok bideratzen dira nekazariei konpentsazioak ematera, betiere kostu gehigarriak eta sarrera galerak direla eta, mendialdeetan eta bestelako natura mugak dituzten guneetan nekazaritza ekoizpenak dakartzan mugen ondorioz.

Horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren, honakoa

XEDATZEN DUT

Lehena. Mendialdeetan eta bestelako natura muga nabarmenak dituzten guneetan edo mendialdeez bestaldeko gune behartsuetan konpentsazio ordainketetarako oinarri arautzaileak onartzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapeneko 2015-2020ko Programarekin bat eta 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Arautegiak ezarritako mugen barruan, betiere foru dekretu honen eranskinari jarraituz.

Bigarrena. 2016ko laguntzen deialdia onartzea, jarraian zehaztutakoaren arabera:

– Laguntza lerroak

- Mendialdeetako konpentsazio ordainketak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren 13.1. N neurria).

- Natura muga nabarmenak dituzten guneei edo mendialdeez bestaldeko gune behartsuei zuzendutako konpentsazio ordainketak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren 13.2. N neurria).

– Epea eta tokia: laguntza eskaerak aurkezteko epea eskaera bakarra aurkezteko ezarritakoa da (2016ko otsailaren 1etik apirilaren 30era arte, biak barne), Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren eskualdeko nekazaritza bulegoetan.

Ordainketa bakarraren eskaerak aurkezteko epe hori luzatuz gero, berez eta besterik gabe beste horrenbeste luzatuko da laguntza lerro honetarako eskaerak aurkezteko epea.

– Kreditu erreserba. 1.078.544,52 euro, “Gune behartsuak konpentsatzeko kalte-ordainak” izeneko 40.1.01.42.01.479.00.04 partidaren kontura, Arabako Foru Aldundiak 2016ko ekitaldirako indarrean duen gastu aurrekontutik.

– Gehieneko laguntza kopurua nekazaritza ustiategi bakoitzeko: 2016ko deialdi honetan bi neurriei begira 2.800,00 euro ezartzen dira gehienez, nekazaritza ustiategi bakoitzeko.

Hirugarrena. Nekazaritzako foru diputatuari ahalmena ematea honako foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, honako oinarri arautzaile hauen kontra nahiz urteko deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren berraztertze errekurtsu guztiak ebazteko.

Laugarrena. Foru dekretu honen aurka doazen maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak indargabetzea, bereziki, honako hauek:

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 21eko 12/2012 Foru Dekretua, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 19ko 7/2013 Foru Dekretua, Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 1eko 18/2014 Foru Dekretua eta Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 14ko 22/2015 Foru Dekretua.

Bosgarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 10a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

ALFREDO SÁEZ DE CASTILLO BELTRÁN DE OTALORA

ERANSKINA

1. artikulua. Xedea

1.1 Foru Dekretu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan oinarri arautzaileak ezartzea nekazariei kalte-ordain gisako laguntzak emateko, betiere nekazaritza ekoizpenak mendialdeetan edo mendialdeez bestaldeko gune behartsuetan dakartzan zailtasunen ondorioz sortzen diren kostu gehigarriak eta sarrera galerak direla eta.

1.2 Ezarritako laguntza lerroak honetarako dira:

– Mendialdeetako konpentsazio ordainketak egiteko (Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren 13.1. N neurria).

– Natura muga nabarmenak dituzten guneei edo mendialdeez bestaldeko gune behartsuei zuzendutako konpentsazio ordainketak egiteko (Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren 13.2. N neurria).

2. artikulua. Definizioak

Foru dekretu honi aplikatuko zaizkio I. eranskinean jasotako definizioak.

3. artikulua. Guneen kalifikazioa

Arabako Lurralde Historikoan guneen kalifikazioa udal mailakoa izango da. Beraz, honela definitzen dira:

3.1 Mendialdeak:

Amurrio, Artziniega, Aiara, Aramaio, Ametzaga Asparrena, Barrundia, Bernedo, Kanpezu, Zigoitia, Kripan, Kuartango, Iruña Oka, Iruraitz-Gauna, Bastida, Lagran, Audio, Arraia, Okondo, Oion, Urizaharra, Gesaltza-Añana, Donemiliaga, Urkabustaiz, Gaubea, Harana, Legutio, Zalduondo eta Zuia.

3.2 Natura muga nabarmenak dituzten guneak edo mendialdeaz bestaldeko gune behartsuak:

Armiñon, Berantevilla, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Lantaron eta Zanbrana.

4. artikulua. Onuradunen betekizunak

Honako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak izan daitezke laguntza hauen onuradun:

4.1 Pertsona fisikoak:

a) Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan inskribatutako nekazaritza ustiategi baten titularra edo titularkidea izatea.

b) Zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan edukitzea.

c) 18 urte beteta izatea eta 65 urte bete gabe izatea, laguntza eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean.

d) Nekazaria izatea titulu nagusi gisa.

e) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla frogatzea.

f) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak izapidetutako zehapen edo itzulketara prozedura batean ez egotea.

g) Ez ezarri izana administrazio zehapenik ez zigor penalik sexua dela-eta diskriminazioa eragin izanagatik, eta ez ezarri izana debeku hau emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen ondorioz (4/2005 Legea, otsailaren 18koa).

h) Eskaera bakarra egitea eta horretan gutxienez ordainketarako onargarriak diren bi hektarea jasotzea.

i) Inolako erretiro pentsiorik ez jasotzea, nekazaritzan jarduteagatik sortu ez den ezintasun iraunkor partzialarena edo osoarena izan ezik.

4.2 Pertsona juridikoa edo ustiategi elkartuak:

Sozietate zibilen, titulartasun partekatuen eta ondasun erkidegoen gisako ustiategi elkartuak edo bestelako pertsona juridikoak izanez gero:

a) Eskatzaileak aurreko 4.1. artikularen a), e), f), g) eta h) letrek pertsona fisikoei ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

Sozietate zibilak, titulartasun partekatuak eta ondasun erkidegoak izanez gero, kide guztiek 4.1. e) artikuluan ezarritako baldintza bete beharko dute.

b) Gainera, gutxienez sozietateren kapitalaren edo banaketa kuotaren ehuneko 50 duten kideen ehuneko 50ek gutxienez izan beharko dute nekazariaren izaera titulu nagusi gisa.

Edonola ere, bazkideen artean tituluak eskualdatuz gero, aurretik adierazitako baldintza bermatuko dela aurreikusi beharko da, estatutuetan edo bazkideen batzar orokorrean hartutako erabakiaren bidez.

c) Zerga egoitza eta egoitza soziala Arabako Lurralde Historikoan izatea.

Ondorio horietarako, betekizun hori betetakotzat joko da pertsona juridikoaren erakundearen helbidea eta zerga helbidea Arabako Lurralde Historikoan egoteaz gain, baldin eta bazkide guztien erdiaren (ehuneko 50) eta, aldi berean, sozietatearen kapitalaren gutxieneko ehuneko 50eko partaidetza duten bazkideen erakundearen helbidea eta zerga helbidea ere Araban badago.

d) Ustiategiko kideek 18 urte beteta izan beharko dituzte eta 65 urte bete gabe, laguntza eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean. Betekizun hori betetakotzat joko da, helbide eta zerga helbideari buruz artikulua honen 4.2 c) letran zehaztutako irizpidea betetzeaz gain, baldin eta bazkide guztien erdiak (ehuneko 50) eta, aldi berean, sozietatearen kapitalaren gutxieneko ehuneko 50eko partaidetza duten bazkideek betetzen badute.

e) Beste pertsona juridiko batzuen partaidetza duten pertsona juridikoei dagokienez, sozietatearen osaera adierazi behar dute, kide diren pertsona fisiko guztiak identifikatuta; horrez gain, horietako bakoitzak ustiategi onuradunaren kapitalean zein ehuneko daukan adierazi behar dute.

f) Nortasun juridikorik gabeko sozietateek ezin dute honelako laguntzarik jaso; salbuespena: jaraunspen erkidegoek jaso dezakete, baldin eta sei urtean gutxienez indibiso mantentzeko ituna egin bada. Sozietate zibilak eta ondasun erkidegoak direnean, eskritura publiko bihurtutako agirien bidez osatuta egongo dira. Halaber, ezin dute honelako laguntzarik jaso makineria erabiltzeko kooperatibek (MEK).

g) Kooperatibek Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan izena emanda egon beharko dute.

5. artikulua. Ustiategien betekizunak

5.1. Natura muga nabarmenak dituzten guneei edo mendialdeez bestaldeko guneei behartsuei zuzendutako laguntzak eskatzen dituzten nekazaritza ustiategiek guneei horietan kokaturik egon beharko dute.

5.2. Pertsona fisiko titularra edo, pertsona juridikoen kasuan, bazkideak, bi ustiategitan edo gehiagotan inskribatuta egonez gero, dela bakarka, dela elkartutako ustiategi bateko bazkide moduan, laguntza hau ustiategi bakar batean konputatuko da, eta bazkide edo kiderik gehien duen ustiategi elkartua lehenetsiko da.

5.3. Foru dekretu honen ondorioetarako, urriaren 4ko 35/2011 Legean xedatutakoarekin bat etorritik titulartasun konpartitua duten nekazaritzako ustiategiek sozietate zibilek duten tratamendu izango dute, baina ez dute bete behar eskritura publiko bidez eratuta egoteko betekizuna.

6. artikulua. Kontrolak

6.1 Onuradunek foru dekretu honetan eta haren garapen arauetan ezarritako baldintzak beteko dituztela egiaztatzeko, Nekazaritza Sailak beharrezko administrazio kontrolak, luraren gaineko kontrolak eta baldintzei buruzko kontrolak egingo ditu, betiere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 13ko 1306/2013 (EB) Arautegiak, Batasunaren nekazaritza politikaren finantzazio, kudeaketa eta jarraipenarenak, eta 640/2014 Arautegi Ordezkatuak ezarritakoarekin bat etorritik eta 809/2014 Exekuzio Arautegiak xedapen aplikagarriak aintzat hartuz.

6.2. Onuradunak baimenduko ditu Arabako Foru Aldundiak ustiategian agindutako ikuskapen bisita guztiak eta ezinbestean eman beharko du laguntzaren gainean eskatutako informazio guztia.

7. artikulua. Murrizketak eta zigorrak, adierazitako azalaren eta azalerarekin erlazionatutako neurriek ezarritako artean desadostasunik egonez gero

Egindako kontroletan ez betetzerik atzemanaz gero, indarreko arautegiak ezarritako honako murrizketak, zigorrak edota itzulketak aplikatuko dira:

7.1. Zehaztutako azalera eskaeran adierazitakoa baino handiagoa dela egiaztatzen denean, adierazitako azalera hartuko da aintzat, laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko.

7.2 Adierazitako azalera zehaztutakoa baino handiagoa dela egiaztatzen denean, neurritz gaindiko adierazpena dagoela ulertuko da. Halakoetan, laguntza kontrolean zinez zehazten den azalaren arabera kalkulatu da. Neurritz gain adierazitako kopurua kontuan hartuz, behar diren murrizketak eta zigorrak ezarriko dira. Neurritz gaindiko adierazitakoaren ehunekoa formula honen arabera kalkulatu da:

$$\text{Neurritz gaindiko adierazitakoaren ehunekoa} = \frac{\text{Adierazitako azalera} - \text{Zehaztutako azalera}}{\text{Zehaztutako azalera}} \times 100$$

7.3 Gerta daiteke zehaztutako azalera osoaren eta neurri baterako ordainketa eskaeran adierazitako azalera osoaren arteko aldea 0,1 hektareakoa edo handik beherakoa izatea; halakoetan, zehaztutako azalera eta adierazitakoa baliokidetzat joko dira. Baldintza hori ez aplikatuko, baldin eta aldea azalera osoaren ehuneko 20tik gorakoa bada.

7.4 Gerta daiteke adierazitako azalaren eta zehaztutako azalaren arteko aldea ehuneko 3tik edo bi hektareatik gorakoa izatea, baina zehaztutako azalaren ehuneko 20koa edo handik beherakoa; halakoetan, laguntza kalkulatu da zehaztutako azalaren oinarri hartuz, baina egiaztatutako aldearen halako bi murriztuta.

7.5 Gerta daiteke aldea zehaztutako azalaren ehuneko 20tik gorakoa izatea; halakoetan, ez da inolako laguntzarik emango azalarengatik.

7.6 Gerta daiteke aldea zehaztutako azalaren ehuneko 50etik gorakoa izatea; halakoetan, ez da inolako laguntzarik emango azalarengatik. Gainera, onuradunari zigor gehigarria ezarriko zaio; zigor hori adierazitako azalaren eta zehaztutako azalaren arteko aldeari dagokion laguntzaren zenbatekoaren berdina izango da. Zigor horien ondoriozko zenbatekoak kenduko dira 1305/2013 (EB) Arautegian edo 1307/2013 (EB) Arautegian ezarritako laguntza neurrien kontura egindako laguntzen ordainketatik, hau da, irregulartasuna atzeman denetik aurrerako hiru urteetan zehar onuradunak aurkezten dituen eskaerengatik eskuratzen duen eskubidearen arabera laguntzen ordainketatik. Zenbatekoa ezin bada guztiz kendu ordainketa horietatik, gainerako saldoa ezeztatuko da.

7.7. Azalerarengatiko laguntza neurrien nekazaritza lursail guztien azalaren adierazpen osatugabearen ezarritako zigorrak kalkulatzeko, honako aldea hartuko da aintzat: batetik, eskaera bakarrean adierazitako azalera orokorraren eta, bestetik, adierazitako azalera orokor hori eta adierazi ez diren nekazaritza lursailen azalera orokorra batuta lortutakoaren arteko aldea.

Alde hori adierazitako azalera orokorraren gaineko ehuneko 3tik gorakoa denean, azalarengatiko laguntza neurrien zenbateko osoa honako mailen arabera murriztuko da:

a) Kopurua ehuneko 3tik gorakoa bada baina ehuneko 25ekoa edo handik beherakoa, ehuneko 1eko murrizketa aplikatuko da.

b) Kopurua ehuneko 25etik gorakoa bada baina ehuneko 50ekoa edo handik beherakoa, ehuneko 2ko murrizketa aplikatuko da.

c) Kopurua ehuneko 50etik gorakoa bada, ehuneko 3ko murrizketa aplikatuko da.

7.8 Ezarritako zigorrak ez zaizkie aplikatuko laguntza edo ordainketa eskaeren zatiei, baldin eta onuradunak agintaritza eskudunari idatziz jakinarazten badio eskaera ez dela zuzena edo zuzena izateari utzi diola eskaera aurkeztua izan ondoren; hori hala izango da, onuradunari jakinarazi ez bazaio agintaritza eskudunak lurrean bertan kontrola egiteko asmoa duenik edota agintaritza horrek ordurako adierazi ez badio laguntza edo ordainketa eskaeran ez-betetzeak izan direnik.

7.9 Halaber, laguntza eskaera bat aurkezten bada deialdi bakoitzean finkatutako mugaegunaren ondoren, horrek berekin ekarriko du ehuneko 1eko murrizketa ezarri beharra atzerapen egun baliadun bakoitzeko, betiere onuradunak eskaerak finkatutako epean aurkeztutako eskaerengatik eskubide gisa izan zitzakeen zenbatekoei dagokienez. Atzerapen hori hogeita bost naturalatik gorakoa bada, eskaera ez da onartuko eta onuradunari ez zaio laguntzarik emango.

8. artikulua. Baldintzekin erlazionatutako ez betetzeak

Baldintza erregimenaren arauetan ez betetzerik egonez gero, laguntza zenbatekoak murriztuko dira abenduaren 19ko 1078/2014 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat zehaztu beharreko kopuru baten arabera; izan ere, dekretu horren bidez zenbait baldintza arau ezartzen dira, hala nola zuzeneko ordainketak, landa garapenaren aldeko urteko zenbait prima edo nekazaritza eta abeltzaintza sektoreari laguntzeko zenbait programaren ondoriozko ordainketak jasotzen dituzten onuradunek bete beharrekoak. Murrizketa ezin bada zehaztu ordainketa egin aurretik, onuradunak ordaindu beharreko zenbatekoa etorkizuneko ordainketetatik berreskuratu edo konpentsatu ahal izango da. Azken kasu horretan, ez dira aintzat hartuko sortutako interesak.

9. artikulua. Murrizketen, zigorren eta ukoen ordena

Ez betetzeek murrizketen, zigorren eta ukoen metaketa eraginez gero, horiek guztiak modu mailakatuan aplikatuko dira aurreko zenbatekotik abiatuz eta honako ordena honen arabera:

- Neurritz gairik murrizketak eta zigorrak.
- Eskaera epekan kanpo aurkezteagatik murrizketak.
- Ustiategiaren azalera osoa ez adierazteagatik murrizketak.
- Baldintzekin zerikusi duten ez betetzeengatik murrizketak.

10. artikulua. Nahita egindako ez betetzeak

Nahita egindako ez betetzetat hartuko dira onuradunak laguntza bat eskuratzeko beharrezko baldintzak artifizialki sortu dituela agerian jartzen dutenak, betiere neurriaren helburuen kontrako abantaila lortze aldera. Kasu horietan, onuraduna bazterturik geratuko da ekitaldi horretan laguntzarako izan duen eskubidetik.

11. artikulua. Laguntzaren kalkulua. Azalera. Zenbatekoak

11.1 Laguntzak urtero emango dira, urteko eskaera bakarrean adierazitako edo kontrolen ondoren zehaztutako ustiategiaren nekazaritza azalaren arabera. Azalera hori kokaturik

egongo da Arabako Lurralde Historikoko mendialdeetan edo mendialdeez bestaldeko gune behartsuetan.

11.2 Diruz lagun daitekeen gehieneko azalera honakoa izango da ustiategi bakoitzeko:

– Mendialdeetan: 30 hektarea; horiei honako kopuru hauek aplikatuko zaizkie:

- Lehenengo 15 hektareei edo azalera txikiagoei laguntzaren ehuneko 100 ordainduko zaie.
- Hurrengo 10 hektareei laguntzaren ehuneko 60 ordainduko zaie.
- Hurrengo 5 hektareei laguntzaren ehuneko 20 ordainduko zaie.
- 30 hektareatik gorako azalera ez du primarako eskubiderik sorraraziko. Natura muga nabarmenak dituzten edo mendialdeez bestaldeko gune behartsuak diren guneetan: 50 hektarea.

11.3 Laguntzaren zenbatekoa honela kalkulatu da:

– Mendialdeetan: nekazaritza azaleraren hektarea kopurua 297,00 euroz biderkatuz eta zenbatekoa azaleraren arabera modulatu, aurreko atalean ezarritakoaren arabera.

– Natura muga nabarmenak dituzten edo mendialdeez bestaldeko gune behartsuak diren guneetan: nekazaritza azaleraren hektarea kopurua 150,00 euroz eta zehaztutako ustiapen koefizienteaz biderkatuz.

11.4 Sozietate zibilen, titulartasun partekatuen eta ondasun erkidegoen gisako ustiategi elkartuei edo bestelako pertsona juridikoei dagokienez, gerta daiteke bazkide edo kide guztiek ez betetzea 4.1.b, 4.1.c, eta 4.1.d artikuluetan egoitzaren, adinaren eta NNIn inguruan ezarritako baldintzak; halakoetan, laguntza murriztuko da baldintzak betetzen ez dituztenen partaidetzaren proportzio baliokidean, behin pertsona juridikoei begira 4.2.c eta 4.2.d artikuluan ezarritako ehuneko 50eko betekizunak egiaztatu ondoren.

11.5 Ez da laguntzarik emango azken zenbatekoa 300,00 eurotik beherakoa bada.

12. artikulua. Laguntza eskaerak

12.1 Urtero laguntzen deialdia onartuko da; haren barruan honakoak jasoko dira:

- Deitutako laguntza lerroak.
- Deialdia ebazteko erreserbatzen diren kredituak.
- Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.
- Laguntzaren gehieneko zenbatekoa, ustiategiko eta laguntza lerroko.

12.2 Laguntza eskaerak eskaera bakarrean jasoko dira, horretarako finkatutako datekin bat etorritik. Eskaera epea automatikoki luzatu ahal izango da eskaera bakarra egiteko epea luzatzen den heinean; era berean, eskaerekin batera 13. artikuluan zerrendatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

12.3 Laguntza eskaerak edo bestelako adierazpenak guztiz edo zatiz ken daitezke idatziz edozein momentutan. Agintaritza eskudunak onuradunari ez betetzeak daudela jakinarazi badio edo lurrean bertan kontrol bat egiteko asmoa duela ohartarazi badio edo lurrean bertan egindako kontrol batek ez betetzeren bat agerian jarri badu, ez da onartuko ez betetzeak ukitutako dokumentu horien jakinarazpenak kentzea.

12.4 Onuradunak aurkeztutako laguntza eskaerak edota bestelako ziurtagiriak edozein momentutan zuzendu eta aldatu ahal izango dira ordainketaren aurretik, baldin eta agintaritza eskudunak kasu zehatzaren ebaluazio orokorraren gainean onartutako ageriko akatsik badago eta onuradunak fede onez jardun badu.

12.5 Laguntza eskaera bakoitzean, datuak zuzen betetzeaz gain, eskatzailearen adierazpen bat aurkeztuko da; adierazpen horretan honakoak jasoko dira:

- Laguntza emateko baldintzak ezagutzea.

- Hala badagokio, ea eskatutako neurriarekin ezin batera daitekeen bestelako laguntzaren baten hartzailea den.

12.6 Onuradun berak ezin izango ditu bi lerroengatiko laguntzak eskatu. Laguntza lerroak ez dira bateragarriak izango.

13. artikulua. Eskaeraren dokumentazioa

13.1 Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela ziurtatzen duen agiria.

Laguntza eskaera aurkezteak berekin dakar eskatzaileak Nekazaritza Sailari baimena ematea zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria zuzenean eskuratzeko. Dena den, eskatzaileak berariaz adierazita uka dezake baimen hori, eta berak aurkeztu beharko ditu eskakizun horiek betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

Ondorio horietarako, otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuan, urriaren 5eko 58/2004 Foru Dekretuak partez aldatuan (azken foru dekretu hori dirulaguntzen onuradunek zerga eginbeharrak betetzen dituztela kreditatzeko prozedurari eta horrela kreditatu beharrekiko salbuespen araubideari buruzkoa da), xedatutakoa aplikatuko da.

13.2 Pertsona fisikoari dagokionez eskatzailearen azken ekitaldiko PFEZren aitorenaren originala, kopia konpultsatua edo baimena, eta, ustiategi elkartuei edo pertsona juridikoei dagokionez, gauza bera baina bazkide guzti-guztiena.

13.3. Originala edo kopia konpultsatua edo baimena, PFEZean lan etekinik badago egotzita; erakunde ordaintzailearen ziurtagiria aurkeztu behar da, jasotako diru kopurua eta lan egindako ordu kopurua adieraziko dituen.

13.4 Originala edo kopia konpultsatua edo baimena, eskatzailea eraldaketarako nekazaritza baltzua, sozietate kooperatiboa edo sozietate mugatua bada; aurrekoaz gain, azken ekitaldiko sozietateen gaineko zergaren fotokopia aurkeztuko da.

13.5 Eskatzailea pertsona juridikoa bada, eraketako estatutuen eta, egonez gero, horien aldaketen fotokopiak.

13.6 Edonola ere, Foru Aldundiak beretzat gordetzen du dekretu honetan ezarritako laguntzak eskatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoei beharrezko deritzon dokumentazio osagarria eskatzeko eskubidea, eskaerak behar bezala baloratu ahal izateko

Eskabideetan akatsik dagoela edo daturik falta dela antzematen bada, organo izapidetzaileak, hala dagokionean, interesdunei eskatuko die eskabidean galdatutako betekizunen gaineko akatsak zuzentzeko edo eskatutako dokumentuak bidaltzeko, 10 egun baliioduneko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita, larunbatak kontuan hartu gabe. Jakinarazpen horretan berariaz adieraziko da, eskatutakoa bete ezean, eskabidea ezetsiko dela, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 42. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

14. artikulua. Izapidetzea

14.1 Eskaerak aurkezteko epa amaituta, espedienteak Nekazaritza Garapeneko Zerbitzuak izapidetuko ditu.

14.2 Espedienteak izapidetzen den bitartean, laguntzaren organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahaliko ditu, ebazpen proposamena egiteko xedearekin beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak, izapide hau betetzeko jarduera ezean erortzen bada, ezinbestean bete beharko du azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, administrazio publikoen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 76.3 artikuluan xedatutakoa.

14.3 Foru dekretu honetan ezarritako laguntzak norgehiagoka prozedura bidez emango dira. Gerta daiteke zehaztutako laguntza eskaerei dagozkien finantza premiak laguntzaren

aurrekontuaren eskuragarritasuna gainditzea; halakoetan, onuradun guztiei banaketa proporzionala aplikatuko zaie.

Onuradunen arteko banaketa proporzionala aplikatzen bada eta, laguntzak eman ondoren, aurrekontu partidaren kreditua handitzen bada ukoak, ezeztapenak edo ordainketaren aurretiko kontrolen ondoriozko murrizketak direla eta, kreditu gehikuntza hori onuradunen artean hainbanatuko da, ordainketak izan baino lehenago.

14.4. Laguntza hauek balioetsiko dituen kide anitzeko organoa ondoren aipatzen diren pertsonak edo, beharrezkoa balitz, beraiek ordeztu dituztenek osatuko dute; hona hemen:

- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren burua.
- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren teknikaria.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.
- Administrazio Kudeaketa Atalaren burua.

Foru dekretu honetan ezartzen ez diren kasuei eta zirkunstantziei dagokienez, balorazio batzordeak bidezkotzat jotzen dituen irizpideak aplikatu ahalko ditu modu arrazoituan.

15. artikulua. Proposamena ebaztea eta jakinaraztea

15.1 Kide anitzeko balorazio organoak hala proposatuta, foru organo eskudunak ebatziko ditu espedienteak, indarra duen araudian oinarrituta. Ebazpen horrek administrazio bidea amaituko du eta bidezkoa izango da haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, errekurtsu horretarako arauak jarraituz. Aukerako berraztertze errekurtsua ere jarri ahal izango da.

